


BERRIGARA

295. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urriak 17

Astoak langabezian

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.


Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea
babesteko gaudela*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA

JUBILATU eta PENTSIONISTEN KANPAINA

Urria - Azaroa 97



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
TRAVEL CLUB
PROGRAMAKO
PUNTUAK

Paregabeko prezioak

MULTIOPTICAS

Aprobetxa zaitza

MONTURA+KRISTALAK

7.900

MONTURA+BIFOKALAK

11.900

**LENTE MULTIFOKALEN
PREZIO BEREZIAK**



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari.

- MULTIOPTICASen kreditu-bartela, diru-erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan zehar modua izango duzu, batere erretiratu gabe.

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 22
Tel. 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRENTERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 51 78 11
20100 ERRENTERIA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tel: 76 03 97
Faxa: 76 29 77

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Enko Azkarate

Erredakzioa:

Enko Mendibil
Enko Elkoroberezar

Maketazioa:

Enko Iturbe

Publizitatea:

Enko Romero

Harpidetzak:

Enko Elortza

Postuen zuzenketak:

Enko Plazaola

Enko Laskurain

Enko Labaien

Erredakzio kontseilua:

Enko Elortza

Enko Angel Elkoroberezar

Enko Labaien

Lamikiak:

Enko Rodriguez

Enko Ortega & Jon Alvarez

Enko Ugalde

Enko Azkarate

Banaketa:

Enko Xangorri taldea

Enko Urda:

Enko 200 ale.

Estrategia:

Enko Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

1979/91

ISSN:

1130-8599

BERRIGARAK ez du bere gain
erresponzialtasunik adierazirik
erresponzialtasunik iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko
Jaurlaritzaren Kultura
Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

PILI MANSO

Manso optika dendakoa

- Zertan datza "Ruta de la luz" izenburuko kanpaina?

- Cione optika taldeak Mauritaniara laguntza humanitarioa bidaltzeko martxan jarritako ekimena da. Kanpaina urriaren 30ean amaituko da. Helburua Mauritaniako biztanleek dituzten ikusmen arazoak ahalik eta gehien konpontzea litzateke. Orain pare bat urte antzeko kanpaina bat burutzen Mauritaniara eta orduan amaitzeke geratu zen lanarekin jarraitzeko asmoa dago. Ikusmen arazo dexente dituzte han, beroa, hautsa edo higiene faltaren eraginez eta beraz, beharrezkoa duten materiala bidaltzeaz gain, Afrikan lanean ari den talde batek ikusmen operazioak egingo



dikie bertako biztanleei.

- Jendeak kolaboratzerik badauka?

- Bai, irailaren 18a baino lehen hainbat material bidali genuen baina oraindik ere jendeak erabiltzen ez dituen eguzki betaurrekoak ekar ditzake ondoren, Mauritaniara bidaltzeko. Besteak beste, "Tierra de hombres" gobernuz kanpoko erakundearen laguntza dugu.

"Mauritaniako biztanlegoaren ikusmen arazoak konpontzeko kanpaina martxan da"

I T U R R I O N E T I K

Lamaiño-Etxeberri baserrian nekazal turismo gelak jartzeko proiektua

Udaleko Gobernu Batzordeak baimena eman die Lamaiño-Etxeberriko jabeek baserrian nekazal turismoa jaso ahal izateko beharrezko obrak egiteko. Hasierako proiektuaren arabera bi lagunentzako lau gela izango dira. Horrez gain, baserriko produktuen salmentarako beste gela bat egokituko da. Era berean, eskoletako gaztetxoek baserri munduari buruzko azalpenak jasotzeko aukera izan dezaten eta bestelako jarduerak ere antolatzeko lokal polibalente bat egongo da baserrian. Baliteke obrak urtea amaitu baino lehen hastea. Nekazal turismorako jarduera datorren urtearen bukaerarako martxan egotea espero da.

E S A N
D U T E

"Italiara lanera joateak beste aurrerapausu bat suposatzen du nahiz eta jakin nire konstanteak mantenduko direla. Nire esperientzia Erroman izango da orain, berpizkundeko pintoreez inguraturik. Beraz, ez naiz abstraktozale itzuliko"

JESUS MARI LAZKANO
margolaria
DEIA

"Ilusioz eta proiektuz beterik joan da Abdon. Materialaren eta kolorearen gaineko etengabeko ikerkuntzan murgildutako gizona zen. Aparteko nortasuna eta sentsibiltate berezia zituen eta gure mendi eta herrietako argiak oso modu lasaian jasotzen zituen"

JULIA ECHEBERRIA
Echeberria galeriako zuzendaria
EL DIARIO VASCO

"Enpresa txiki eta ertainak arriskuan gaude"

JAVIER BERASATEGI
TTTko lehendakaria
EGUNKARIA

**VOLCANO**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astlehena: 19:30.
(Ikuslearen eguna).

**FLASH-BACK
(El apartamento)**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

▼▼ **Jesus Mari Lazkanoren** margo erakusketak ikusgai daude Donostiako Galeria Dieciseis aretoan (urriaren 26ra arte) eta Bilboko Diputazioko Artxiboan (Maria Diaz de Haro, 11). Bilbon, hilabete osoan zehar, Bizkaiko industria orubeei buruz 1980ko hamarkadan egindako lanak erakusten ditu. Donostian, berriz, "Nondik nora" izenburupean, gaur egungo arteari buruzko erreflexioa planteatzen du formato haundiko lanen bitartez.

Zinea

▼▼ Hainbat katastroferen ondoren, Los Angeles hiria berriz ere dardarka jarriko da Wilshire distrituko sumendiak erupzioa izatean. Biztanleria, erabat beldurtuta, kalera irtetzen den bitartean, sumendiari aurre egiteko gauza den gizon bakarra (eta filmeko heroia beraz) dago, Emerjenzia Zerbitzuetako buru den *Mike Roark* alegia (**Tommy Lee Jones**). Efektu berezi aipagarriak **Mick Jacksonen** filme honetan.

▼▼ Joan zen urteko Donostiako Zinemaldian, Zabaltegi sailean aurkeztu zen **Gilles Mimouni** zuzendari frantziarrak zuzendutako lehen filmea. Ezkontzear dagoen *Max* izeneko gazteak bapatean bere emaztegaia izandako *Lisaren* ahotsa errekonozituko du lokal batean eta bere bizitza erabat aldatuko da hortik aurrera... **Vincent Cassel** eta **Monica Belucci** aktoreekin.



Deiak

▼ **1962**an jaiotako enbaxeraren bazkaria urriaren 25ean Antxonin. Izen-ematea bertan.

▼ **1937**an jaiotako enbaxeraren bazkaria urriaren 25ean Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **1955**an jaiotako enbaxeraren bazkaria urriaren 25ean.

▼ **1947**an jaiotako enbaxeraren bazkaria azaroaren 8an Lasan. Izen-ematea 76 39 30 edo 76 22 19 telefonoetan.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean 18:30etan Seminarioko lokalean.

▼ **Juan Jose Altunaren** margotzailearen erakusketa Eibarko Topalekuan.

▼ **Abdon Juaristiren** margotzailearen Donostiako Echeberria galerian urriaren 25era arte.

Ogia

▼ **Domeka 19:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 17:** Puy.
- ▼ **Zapatua 18:** Guallar.
- ▼ **Domeka 19:** Guallar.
- ▼ **Astlehena 20:** Estella.
- ▼ **Martitzena 21:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 22:** Camacho.
- ▼ **Eguena 23:** Puy.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 08

Kubako abeslariak

“Entrevoques” kamara abesbatzaren emanaldia gaur

Udazken Kulturalaren barruan, Kubako “Entrevoques” kamara abesbatzako kontzertua eskeiniko du gaur 20:30etatik aurrera Santa Marinako parrokian.

Digna Guerra zuzendaria sortu zuen “Entrevoques” abesbatza 1981n eta 8 emakume eta beste 8 gizonoz osatuta dago. Bere sorreratik hainbat emanaldi eskeini ditu munduan zehar eta horrez gain antzerkirako musika zein zinemarako soinu banda ugari grabatu ditu, tartean “El siglo de las luces” filmeko musika edota “Aporumbeosis” izenburuko kasetak (1990).

Lortutako sarien artean, La Habanako Ganbarako Musikaren lehiaketan kubatar musikaren interpretazio onenaren saria irabazi zuen. 1994an eta 95ean Kanarietako Kabilido Insularrak “Entrevoques” taldea irlan bira bat egiteko gonbidatu zuen eta Juan Jose Falcon konpositorearen “Misa solemne”aren estreinuan hartu zuen parte Kanarietako Orkestra Filarmonikoarekin eta Abesbatzarekin batera.

Gaurko kontzertuan eskeiniko dituen piezean



Kubako “Entrevoques” taldeak zinerako eta antzerkirako ere hainbat lan egin izan ditu.

artean, “Lauda, Jerusalem dominum” (Monteverdirena), “Der falke” (Brahms), “Dieu! Quil la fait bon regarder” (Debussy), “Son de la loma” (Matamoros), “I got rythm” (Gershwin) edota “Mambo” (Lopez Gavilan) aipa daitezke.

Kontzerturako sarrerak 800 pezeta eta 500 peze-

tan (Gazte Txartela edo langabetu txartelarekin) salduko dira gaur.

Musika Banda domekan

Bestalde, Udal Musika Bandak kontzertua emanango du domekan 12:30etan Novedadesen. Bandak ho-

nako piezak joko ditu: “Marcha eslava” (Tchajkowsky), “Fantasia super l’homme armé” (Schoonenbeck), “Una noche en Calatayud” (Luna) eta “Sinatra in concert” (Nowak).

Domekarako sarrerak 200 pezeta jarriko dira salgai. Udazken Kulturalako hurrengo emanaldia urriaren 31n izango da: Naroa Enkotege pianujoleak eta Aintzane Basterretxea kantariak maitasun operatako ariak interpretatuko dituzte.

Kontzertua 20:30etan hasiko da Santa Marinan. Sarrerak 800 eta 500 pezeta salgai daude

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

EHERi azalpena

BERRIGARAN azaldutako "¿Un cerdo?" eskutitzaren erantzun bezala Xamatz dantza taldeak azalpen batzuk eman nahi ditu:

Xamatzek San Martinetan saldu behar zituen txartelak jaso bezain laster, kexa aurkeztu zien txartelak gertatu zituztenei. Hauek beraien akatsa onartu zuten arren eta txartelak aldatzen saiatu ziren arren, aldatzeko denborarik ez zegoela ikusi ondoren, Bedelkarrekin genuen konpromezua betetzea erabaki genuen, nahiz eta txartelak gaztelera hutsean saldu behar izan. Xamatzek, bere sorreratik, euskara erabili du bere hizkuntza bakartzat eta horrela jarraitzeko asmoa daukagu, nahiz eta noizean behin gure bidetik irten beharra izaten dugun. Uste dugu argi dagoela Xamatzek euskararen eta euskal kulturaren alde urte askotan egindako lana.

Amaitzeko esan beharra daukagu, honelako kritika bat egin aurretik gertatutakoaren berri jakitea komeni dela eta gu beti gaudela prest edonori azalpenak emateko edo edozeinen aholkuak entzuteko.

XAMATZ DANTZA TALDEA

Txerriaren inguruan

Joan zen asteko BERRIGARAN Bergarako EHE taldeak izenpetuta sail honetan kaleratu zen ¿Un cerdo? izenburuko kartaren inguruan azalpen batzuk egin nahi dituzte Bedelkarreko harakinek:

1. San Martineko feriako txerriaren zozketako txartelak geuk enkargatu genituela.

2. Xamatzekoak txartelen testua erdaraz zegoela konturatu zirela eta berehala jakinarazi zigutela, baina dagoeneko denborarik ez zegoela aldagetarik egiteko.

3. Bedelkarreko harategietan astero-astero zozketa bat antolatzen dugula eta txartelak euskara hutsez idatzita kaleratzen direla.

4. Bedelkarreko harakinak, Aritzeta abesbatza eta Xamatz dantza taldea ez direla ezeren errudun.

Aitzitik, Aritzeta, Xamatzi eta beste hainbati, baita Bergarako Udalarri ere, eskerrak eman nahi dizkiogula egindako lanagatik. Guztion artean San Martin bezpera ederragoa egiten ahalegintzen gara.

BEDELKARREKO HARAKINAK

HBko Mahai Nazionalaren epaiketa

Epaiketa hau ez da arrunta izango, bertan indar politiko baten zuzendaritza osoa izango baita epaitua. Ez da arrunta izango oso gutxitan ikusten delako epaiketa honetan ikusitakoa: hasi aurretik Aznarrek, Mayor Orejak eta beste politikari batzuek Mahai Nazionalarentzat gartzela zigorra eskatu dute. Eta hau eskatu dute, Partido Popularra, Ezker Abertzaleak azken urteetan eman dituen aurrera-pausoengatik urduri dagoelako. Eta beldur direlako aurrerantzean emateko prest gauden pauso eta bide berrietaz.

Herri Batasunak presio politiko eta mediatikoak behin eta berriro salatu ditu, baina hori baino gehiago egin zen joan den astelehenean. Aurkeztutako errekusazioarekin egon diren eta dauden presio horiek agerian utzi genituen. Epaimahaiko buruaren alabak barne ministeritzan lan egiten du eta horrek erakusten du lehen aipatu presioak pertsonalki ere bideratu ditzaketela.

Partido Popularrak eta honen gobernuak apostu zuzena eta garbia egin du. Mahai Nazionala gartzeleratu nahi du bere errepresio politikaren beste adibide batean bilakatu dadin. Estrategia errepresibo horren adibide asko izan ditugu honetan: ehundaka gazte atxilotu, Basajaun eta beste militanteen erahilketa, Santo Domingoko mintzakideen gartzeleratzea, eta abar luzeari, orain Mahaiaren prozesamendua batu behar zaio. Baina zer bilatzen du PPK horrelako jarrera errepresiboarekin? Gure etsipena. Bide zuzena aukeratu ote dugun zalantza

sortzea eta hemen irtenbiderik ez dagoela sinisterraztea. Baina ez dute lortuko. Ez da ezker abertzalea akatu nahi duen lehenengo gobernu, ez da akatu nahi gaituen lehen alderdi politikoa, eta oraingoan zorrotzago izanda ere, ez dute herri honen mugimendu independentistaren, amaiera ikusiko.

Irtenbiderik ez. Hori da apostua, hori da eskatzen duten bakarra. Guk, ostera, beste askotan bezalaxe, pausoak emateko prest gaudela erakutsi diegu, mugitzeko eta beharrezkoak diren bide berriak irekitzeko, Euskal Herriaren askatasuna eta berean bakea lortzeko. Hortxe dute Alternatiba Demokratikoa. Herri honen eskubideak onartu eta alaboko sufrimendua. Hain erraza, baina aldi berean, gure eskubideak zapaltzen jarraitu nahi dutenentzat hain zaila omen dena.

Eta horrexegatik epaituko dute Mahai Nazionala, Alternatibaren nondik-norakoak azaltzeagatik. Ez dutelako Alternatibaren berri izan nahi. Ez dutelako gure eskubideetaz, autodeterminazioaz eta gure irradetasunaren onarpenaz ezer entzun nahi. Ez dute ikusi nahi munduan dauden gatazkak mahai baten konpontzen direla; hor dugu Irlandan gertatzen ari den bake prozesua. Orain dela bi aste aurretik, genuen Irlandako prozesuaren inguruko proposamenarekin, Mahai Nazionalak erakutsi du norik duen ekimen politikorako gaitasuna eta nor dagoen aurrera pausoak emateko eta nor den bakeari behin eta berriro ateak itxen dizkiona.

Amaitzeko, esan, epaiketa honen aurrean ez dagoela mutu egoterik, Mahaiaren epaiketaren aurrean denok dugula zerbait egiteko ahalmena eta Estatu espainolari gogor pagatu arazi behar dugula behin eta berriro errepresio bideari eustea eta herri honen askatasun egarriari muzin egitea.

BERGARAKO HERRI BATASUNA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Jubilazioari buruzko mahai ingurua

Datorren egunean "Erretiratu izatetik gizartean presente izatera nola pasa" gaiari buruzko mahai ingurua izango da 19:30etan Miguel Altuna institutuan. Bertan, Bergarako Udaleko, elizako, irakaskuntzako, enpresa munduko, Jardun elkarteko eta elkarte gastronomiko bateko ordezkariak hartuko dute parte. Martitzenean, berriz, Imanol Sorondok Bergarako eta Antzuolako ermitei buruz hitz egingo du eta aurretik, 17:00etan, San Martin plazatik irtenda kultur bisitaldia antolatuko da. Ekitaldiak jubilatuek antolatutako Kultur Hamabostaldiaren barruan antolatu dira eta amaiera ekitaldia datorren eguakitzean, hilak 24, arratsaldeko 18:00etan izango da.

Autopistari hainbat alegazio egin dizkio Bergarako Udalak

Udalak Eibar-Gasteiz autopistari egindako alegazioak onartu zituen Udalbatzak joan zen martitzeneko Plenoan eta eguastenean aurkeztu ziren Diputazioan. Alegazioak EAJ, EA eta PSE-EE alderdien aldeko botuekin onartu ziren eta HBko zinegotziak ez ziren Plenoan izan. Alegazioak onartu aurretik Victoriano Gallastegi alkateak alegazioak Udaleko arduradun eta teknikari, afektatu eta autopistaren proiektua egin dutenen arteko bile-retatik irten direla adierazi zuen.

Beasain-Durango errepideak Eibar-Gasteiz autopistarekin Bergaran lotuko duen saihezbidea ez da autopistaren proiektuan jasotzen, hau da, bi errepideak non eta nola lotuko diren ez da jasotzen, nahiz eta Errepide Plan Orokorrak autopistarekin erlazionatu saihezbide hori. Bergarako Udalak lotunea nola, non eta nork egingo duen argitzea eskatzen du. Bestalde, San Kristobalگو hondakindegia lekuz aldatu behar dela esaten da proiektuan, autopista bertatik pasatuko delako, baina ez da zehazten nora eramango den hondakindegia.

Ondartza baserrian ordainlekua

Trazatuari dagokionez, Ondartza baserriaren inguruetan ordainleku bat jartzea aurreikusten da proiektuan. Ondorioz, Ondartzako ingurunea



San Kristobalگو hondakindegia lekuz aldatuko da.

oso bistan geratuko da udalerriko leku askotatik eta hori ekiditzeko proposamenak egin dituzte. Ordainlekua Ondartza baserria baino lehen edo bestela aurrerago, Galeperren fabrika zegoen inguruan, jartzea proposatzen du Udalak; Ondartzan jartzekotan, berriz, errekatik gertuago jartzea.

Bestalde, Labegaraie-tako eskonbrera gainera pasa beharreko bidezubiak arazoak sortzen ditu Angiozarko bailararen bukaeran eta Udalak inpaktoa gutxitzeko neurri teknikoak proposatzen ditu.

Azkenik, Bergarako ondare historiko-artistikoa zaintzeko hainbat ikerketa egitea eta arreta berezia jartzea eskatu du Udalak ondorengo guneetan: Eloregerri auzoko Ariztizabal eta Zalgomendi baserrietan, Azkarruntz auzoko Aldeta Azpikoa eta Aldeta Gainekoa baserrietan, Idurixoko kobazuloetan,

Ondartza etxean, Goiauzoko Errota Erdikoa eta Goikoa baserrietan eta Sanantonabat auzoko Albi-sua baserrian.

Herri Batasunaren alegazioak

Herri Batasuna ez zen plenora joan eguerdiko ordubatean izan zelako eta ordu horretan alderdi horretako zinegotziak lan arazoengatik plenoetara ez joatea erabaki dutelako. Gobernu taldeak martitzeneko Plenoan onartutako alegazioez gain, HBk beste iradokizun batzuk egin dizkio proiektuari: autopista nekazari gune eta ekosistema lurtarren kontrako eraso bortitza dela, Euskal-Herria ez duela bertebartzten, herritarren parte hartzea ez duela bultzatzen eta obra batean 100.000 miloi pezeta baino gehiago gastatzea onartezina dela uste du Bergarako Herri Batasunak.

HILDAKOAK

Moises Elorza Larrañaga

Urriak 10, 47 urte.

Pilar Igartua Ugalde

Urriak 10.

Francisca Akizu Gallastegi

Urriak 11, 92 urte.

Jose Igartua Iñarra

Urriak 12, 82 urte.

Urbana Blazquez Diaz

Urriak 13, 90 urte.

JAIOTAKOAK

Ane Txintxurreta Intxausti

Urriak 2

Ibai Agirrezabal Zubizarreta

Urriak 6

Maria Cid Aldama

Urriak 8

Maria Aginagalde Mendibil

Urriak 9

Itziar Retes Zabalo

Urriak 12

Asmaizu lehiaketa

Bergarako Akulu-AEK Euskaltegiak antolatzen duen Asmaizu lehiaketan Maider Arregi izan da aste honetako irabazlea. Erantzun zuzena hau zen: "Gaur eguerdiko ordu bat eta erdietan, artzain ugari bilduko da Elosuko zelaietan". Guztira 194 partaide izan dira aste honetan eta horietatik 37 erantzun izan dira zuzenak. Bestalde, Portugaleten ospatuko den AEK egunera joateko autobusa antolatu dute. Goizeko 10:15etan irtengo da Pesatik eta izena Kortazar, Pol-Pol, Arrano edo AEK-Akulu Euskaltegian eman ahal izango da.

Txapa Irratiaren programazio berria

Txapa Irratia kolektiboa programazio berria gertatzen ari da udazken-neguko denboraldiari begira. Betiko irratsaioak indartu eta beste berri batzuk egin nahi dituzte. Horregatik, Txapan programaren bat egin nahi duen edonori datorren asteazkenean, hilak 22, 19:00etan Txapa Irratiak Zabalotegiko dorre azpian duen lokalean egingo den bilerara joateko deia egin die.

Gartzela Zaharreko aisialdi eskaintza

Gartzela Zaharreko karneta ateratzeko azken aukera astebukaera honetan izango dute gaztetxoek. Gogoratu behar da 2 argazki eta 3.000 pezeta behar direla urte osorako karneta ateratzeko. Gartzela Zaharra zapatu eta domekero zabalduko da 16:00etatik 20:00etara gaztetxoentzat. Domeka honetan egun guztirako irteera egingo da Asentziara.



Azkona anaiak 1926an Bergaran, pelikula baterako irudiak jasotzen.

Azkonatarrek 1926an herriari buruz egindako filmea berreskuratuko da

Bergarako etxeak, dendak, lantegiak eta jaiak jasotzen dira

Euskal Filmategiak Azkona anaiek 1926an Bergarari buruz egindako "Tricentenario del cristo de Montañes" dokumentala berreskuratuko du. Filmea nahiko egoera kaskarrean dago eta duen garrantzia historikoagatik berreskuratuko egingo da. 1926an Bergaran Montañesen kristoaren -gaur egun frogatua dago Juan de Mesarena delahirugarren mendeurrena ospatzeko antolaketa batzorde bat eratu zen.

Batzordeak Bilboko Lux enpresari 1.500 pezetaren truke Bergarari buruzko 350 metroko pelikula egitea eskatu zion. Filmean herriko etxeak, dendak eta lantegiak eta ospatzen diren jaiak agertu behar ziren. Arantzazu Oregi udal artxiboko ardurdunak esan digunez, "pelikula Bergarari buruz propaganda egiteko

zen eta ordurako nabiko ideia arrerakoia zen". Lux produktorak Azkona anaiei eman zien filmea egiteko ardura eta hauek 750 metro pelikula eta 3.000 pezeta eskatu zituzten. Pelikula ikusi ondoren batzordekoak ez ziren oso gustora geratu eta Udaleko artxibategian dauden agiriaren arabera pelikularengatik 1.500 pezeta ordaindu zituzten.

1978an Peio Aldazabal Euskal Filmategiko arduraduna Azkona anai batekin harremanetan jarri zen eta bere ganbaran aurkitu zuen pelikula. Azkonatarrek ezagunak diren euskal zinemagintzan "El mayoralgo de Basterretxea" filmeagatik Bergarari buruzko pelikulak 36 minutuko iraupena du eta orduko hainbat gauza ikus daitezke. Udalak kopia bat jasoko du.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

Solana eta Kapanagaren etxeak bota dituzte etxe berriak egiteko

Joan zen astelehenean Solana eta Kapanagaren etxeak bota zituzten Area 20ko lanei hasiera emanaz. Area 20 izeneko gune horretan, Ibargaraitik saihesbidera bitarteko lursailak sartzen dira eta bertan etxeak egiteko proiektua onartuta dago.

Oraindik ez da erabaki etxe berrien eraikuntza Seminariotik edo Bariante aldetik hasiko den, aurrez, area horretako lurren jabeak euren artean ados jarri eta Udalarekin egin beharreko trami-teak konpondu behar baitira. Udaletik adierazi digutenez trami-


te horiek konpontzen asko jota urtebete pasatuko da. Horiek guztiak konpondutakoan Solana eta Kapanagaren etxeaz gain, inguruan dauden beste etxeak ere bota egingo dituzte etxe berriak egin ahal izateko.



Bihar, zapatua, emango zaio hasiera elkarteen arteko mus eta tute txapelketari

Bihar, zapatua, emango zaio hasiera elkarte gastronomikoen arteko mus eta tute txapelketari. Zortzi elkarte arituko dira lehian eta final laurdenetan joanekoa eta itzulerakoa jokatu beharko dituzte. Itzulerakoa datorren

zapatuan jokatu da. Final erdiak eta finalak, osterara, azaroaren 8an jokatu dira Pertxa elkarteetan. Iazko txapeladuna Pertxa izan zen eta aurten berari egokitu zaio txapelketa antolatzea.



Lehen eta bigarren errondak zapatu honetan eta hurrengoan jokatu dira. Final erdiak eta finalak, osterara, azaroaren 8an Pertxa elkarteetan.

EAJren ez-ohiko batzarra

Urriaren 23an, eguena, 20:00etan egingo den ez-ohiko batzarrerara joateko deia luzatu die alderdikideei EAJk.

Argazki rallya

Pol-Pol argazki taldeak argazki rallya antolatu du hurrengo urriaren 26rako. Izen-ematea egunean bertan argazki elkarteak Zabalotegin duen egoitzan egin ahal izango da goizeko 08:30etatik 09:30etara. Karretek toki berean eguerdiko ordubietan entregatu beharko dira. Argazkien emanaldia eta sari banaketa azaroaren 15ean izango dira 19:30etan taldearen egoitzan. Rallyari buruz informazio gehiago 76 33 98 telefonoan.

Txapa Irratiaren programazio berria

Txapa Irratia kolektiboa programazio berria gertatzen ari da udazken-neguko denboraldiari begira. Betiko irratsaioak indartu eta beste berri batzuk egin nahi dituzte. Horregatik, Txapan programaren bat egin nahi duen edonori datorren asteazkenean, hilak 22, 19:00etan Txapa Irratiak Zabalotegiko dorre azpian duen lokalean egingo den bilerara joateko deia egin die.

HBko Mahai Nazionalaren aldeko manifestazioak

Mahai Nazionalaren epaiketagarik protesta egiteko zapatuan eta astelehenean manifestazioak izan dira. Bestalde, HBko zinegotziek adierazi dute epaiketak iraun bitartean ez dituztela ohiko lanak egingo Udalean.

Egineko mus txapelketa

Aste honetan Eginen mus txapelketaren partidak zapatuan 16:00etan jokatu dira Belenguan.

Pol-Polen mendi irteera

Pol-Poleko beteranoek mendi irteera antolatu dute domekarako Orduña eta Izarra mendateetara. Irteera goizeko 07:30etan Frontoitik izango da eta txartelak Pol-Pol tabernan eros daitezke.

Berrigara Gida 98



Berrigara Gida 98, Bergara eta Antzuolako gida komertzial prestazen dihardugu. Aitziber Aretxaga (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.

Bestalde, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburutxoak. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahiz baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzeko eskatuko genizuke (76 03 97)

BERRIGARA

Alfredo Ruiz Roche

Kubako enbaxadako kultura aholkularia

Alfredo Ruizek, Kubako enbaxadako kultura aholkulariak, hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Miguel Altuna zaharrean. Hitzaldia, Ernesto Che Guevararen heriotzaren 30. urteurrena dela eta, Bergarako Komite Internazionalistek antolatutako ekitaldietako bat izan zen. Hitzaldia amaitutakoan, elkarrizketa egin genion Cheri eta Kubari buruz zertxobait gehiago jakiteko.

- Zeintzu izan dira Ernesto Che Gevarak Kubako iraultzari egingandako ekarpen nagusiak?

- Garrantzitsuena bere eredia izan da. Berak zuen pentsamolde eta ekintzaren arteko koherentzia. Heziketa aldetik, sekulako garrantzia izan zuen: bai iraultza gauzatzeko ari zenean eta baita Industria ministroa edo Banco Nazionalaren presidentea izan zenean. Che Gevarak iraultzaile batek izan dezakeen giza

ahalmen gehienak bildu zituen. Gaur egun ere mito bat baino gehiago da. Bere izpirituak bizirik dirau Kubako herrian, bertako semea izan zelako eta bere alde borrokatu zuelako.

- Gaur egungo Kubako gizartearen Chek bultzatutako ideiak eta proposamenak bizirik diraute, aldatu egin dira ala bilakaera bat izan dute?

- Gizarte guztietan baloreak eboluzionatu egiten dute eta uste dut Kuban onera eboluzionatu dutela. Giza duintasuna, giza eskubideak, heziketa eta osasuna oraindik ere babestuta daude Kuban eta balore horiek babestu izanak, Kubako herria kapitalismoaren hatzaparretan ez erortzea ekarri du. Izan ere, kapitalismoaren ezaugarrietako bat da giza baloreen



"Elkartasuna eta berdintasuna bizirik diraute Kubako herrian".

ahultasuna eta horren ondorioz, gizona beronen otso da. Kuban, berriz, gero eta gehiago gizona gizonaren anaia da. Horregatik, elkartasuna, inperialismoaren aurkako borroka eta berdintasunaren baloreak bizirik diraute Kubako herrian.

- Kuba baliabide materialen aldetik egoera larrian dago. Kubako gobernuak ez al du aldaketarik egin behar?

- Urte askotan aldaketak ari gara egiten. Kubako iraultzak oso une larriak bizi izan ditu eta gogoratu behar da inperialistek industriarako ma-

terial guztia eramane zutela Kubatik 1961.ean. Orduan, industria berpizteko aldaketak egin behar izan zituzten, nekazal erreforma egin zen eta merkataritza modu berriak bilatu behar izan genituen.

Orditik, Kuba beti egon da aldatzen eta, batez ere, estatu komunisten amaierarekin, gure ekonomia berregokitu behar izan dugu. Kanpoko inbertsioei atak zabaldu genizkien, baina beti ere mugak jarri, gure herria ez saltzeko. Ekonomia sozialista gaur egungo merkatu kapitalistara egokitu dugu.

“Estatu komunisten jeitsierarekin kanpoko inbertsioei atak zabaldu dizkiegu, baina mugak jarri gure herria ez saltzeko”

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.

☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Igartua doktorea
otorrinolaringologoa

Sudur - eztarri - belarri

Barrenkalea, 35 1-ekz.

☎ 76 70 91

Astehenetik ostiralera 16:00-20:00

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorenzo, 25 BERGARA

Tfnoa: 76 18 23


Arre arreka

Astoak badu tokirik oraindik herriko baserrietan

XXI. mendearen atarian astoak desagertzen ari omen dira gure baserriko parajeetatik. Land-Roverrek edo baserrietan gaur egun erabiltzen den makineriak astoak erretiratu dituzte piskanaka-piskanaka. Hala ere, bailarako herrietako kopuruekin konparatuz, Bergarako egoera bestelakoa da.

Diputazioak San Antonion daukan Nekazaritza Ganbarako bulegoan emandako datuen arabera 90 asto daude Bergarako baserrietan. Beste herri batzuekin konparatuz, Bergarako kopurua askoz haundiagoa da. Jose Kruz Iburguren Nekazaritza Ganbarako idazkariaren hitzetan, *“inguruko herrietan askoz ere asto gutxiago daude. Arrasaten esate baterako hiruzpalau asto izango dira; Oñatin bebor asko daude baina asto bakarra dago zenbatuta; Aretxabaletan pare bat daude; Eskoriatzan bost bat izango dira... Egia esan, ez dakit zeintzuk izango diren horren arrazoiak baina baliteke kontajioagatik izatea. Baserri batean astoak badira, normalean ondoko baserrian ere badituzte. Bergaran adibidez Osintxu eta Mekolalde inguruan biltzen dira asto gebienak”.*

Hala ere, Iburgurenek azaltzen digun moduan,



Inguruko herrietan Bergarako baserrietan baino askoz ere asto gutxiago daude.

asto kopurua globalean jeitsi egin da azken urteetan Deba Garaian; *“lehen baserri bakoitzean gutxienez asto bat egoten zen, orain baserri gutxi*

batzutan kontzentratzen dira. Badira 10 asto dituzten baserritarrak eta ez dut uste lehen baineste izango zituztenik”.

Garai batean baserriko

lanetarako erabiltzen diren astoak, zama lanetarako edo ortuan jorratzen erabiltzeko. Orain Land-Roverren edota baserrietara heldu den makineria



Osintxuko Urzelai baserrian lau asto dituzte. Jose Ramon Mendikuterren iritziz astoa uste baino animalia argiagoa da.

berriaren eraginez nagusiki garbiketa lanetarako erabiltzen dira. "Basoak garbitzeko, pinu berria sartzerakoan adibidez ingurua garbi mantentzeko erabiltzen da" diosku Iburgurenak. Beraz, astoak orain gutxira arte baserrian zeukan funtzioa galdu egingo du dagoeneko eta horrez gain lehen kalera egiten dituen ibilaldiak betirako galdu dira. Izan ere, ez dira urte asko igaro baserriarrak euren produktarrak (barazkiak edota esne-marmitak) asto-banastetan jarri eta kalera asto gainean jeisten zirenetik. San Pedro edo Santa Marinako atzealdeetan astoak

lagatzeko lekuak toperaino egoten ziren orduan.

Baserriko irudia


Maite Aristegi EHNEko idazkariak oraindik gogoran du irudi hori; "garai batean baserriko oso animalia inportantea izatetik ia presentzia testimoniala izatera igaro da astoa. Oso erabilpen urria dauka gaur egun. Alde batek traktorea eta kotxea baserri guztietara heldu da (emakume baserriar

askok ere gida-karneta atera dute) eta bestalde saltzeko moduan ere aldatetak izan dira, salmenta zuzenera dedikatzen diren baserriarren kopurua jeitsiz. Baserri munduan eman den berregituraketa borren eraginez, astoak bere funtzioa galdu eta ia "langabezian" geratu dira. Gaur egun plantazioak egiterakoan basoa garbi mantentzeko erabiltzen dira; astoak ez du landutakoa jaten, ardiak

berriz bai. Belarra jateko ondo dator eta mantentzen aldetik animalia merkeenetarikoa da. Karga lanetarako edo, kargak eramanez, mendian hiruzpalau eguneko ibilaldiak egiteko oraindik ere oso erabilgarria da astoa".

Kontua da astoak baserriaren irudia ordezkatu izan duela urte askotan baina gero eta asto gutxiago ikusten dira gaurko egunean inguruko zelaietan. Maite Aristegiren

"Garai batean baserriko oso animalia inportantea izatetik ia presentzia testimoniala izatera igaro da astoa" MAITE ARISTEGI



Basoak garbi mantentzeko erabiltzen da astoa gaur egun.

hitzetan, "gure artean ere komentatzen dugu pena dela gure paisaiatik astoa desagertzea. Behar bada ez zaio eman daukan garrantzia eta gaur egun hirugarren mailako animalia moduan kontsideratua dago. Interesgarria izango litzateke mantentzea eta astoari erabilpenen bat topatzea. Astokumeen baragia adibidez nabiko ona omen da... Gure kulturaren zati inportantea izan den astoa desagertzea tristea litzateke. Gainera oso gastu gutxiko animalia da, zerbitziala baina oso terkoa ere bai...".

Animalia argia

Norbait adimen gutxikoa dela adierazteko ere "asto" hitza erabili izan da behin eta berriz. Hala ere, Osintxuko Urzelai baserriko Jose Ramon Mendikute ez da iritzi hortakoa; "astoa fina da, langilea jeneralmente..., fina eta zuzena izaten da astoa. Eta barri batean bi aldiz erortzen ez den animalia da, listoa da. Gauzez ez du argirik behar, berez argia da astoa". Mendikuterren baserrian lau asto dituzte: "Peke" k 8 urte ditu, "Isidra" k eta "Estella" k launa urte eta, azkenik, "Txikito" k bizpahiru hilabete. Jose Ramonen hitzetan, "urte asko hartzen dituzte eta batzuetan 30 urte izatera ere heltzen dira. Asto onak dira orain ditugunak, oso trankilak eta eskuetan obitutakoak. Lanerako erabili izan ditugu beti; baserriko lanerako, mendira eramintak eramateko, jana eramateko... Orain garotan eta egurretan ibiltzen dira". Mendikuterren iritzi, nabiko animalia garestia

da astoa; "Santiago egunean Gasteizen izan nintzen eta asto politak zeuden baina 105.000 pezeta eskatzen zituzten. Bestela 75.000-80.000 pezeta inguruan daude. Asto barik geratu ezkerro ferixaren batean erost egin behar... "Peke" eta "Isidro" bemen jaiotakoak dira eta "Estella" Lizarratik ekarri genuen...".


Baso garbitzailea

Lesarri baserrian 10 asto dituzte. Zoila Altubek argitzen digun moduan, "lehen bakarria izaten genuen baina aspaldian ugalduz joan da kopurua. Lehen geneukana Mekolaldera jeisteko, esnea eramateko eta etxerako, belarra mozteko eta beste lan batzuk egiteko erabiltzen genuen. Orain dauzkagunak berriz basoa garbi mantentzeko erabiltzen ditugu eta hor ibiltzen dira, gora eta behera. Lehen bakarria izatean izena jartzen genion baina orain hainbeste direnez... Adin guztietakoak ditugu; badira hiru gazte eta besteak edade diferentetakoak dira".

Zoilaren arabera, gaur egun ez dago astoentzako lanik baina berez abere langileak dira. Horrez aparte itxura batean behintzat lehiakide bikainak ditugu Lesarriko astoak, izan ere Zoilaren iloba batek hainbat trofeo eskuratu baitzuen orain gutxira arte Osintxuko Kofraixetan antolatzen zirenen asto karreratan.

Karnabaletan

Badira asto bakarrik duten baserriak ere. Ugabide baserriko Maria Iturbek azaltzen digunean,



Jose Kruz Iburguren Nekazaritza Ganbarako idazkaria.

Gaurko astoak langabezian

Asko hitzegin da aspaldi honetan astoa desagertzeko zorian dagoela baina oraindik ez dago dirulaguntzarik ekidoen familiako ugaztun hauek izatearren. Jose Iburgurenek esplikatzan digunez, "Euskal Elkarte Autonomoan ez dago subentziorik astoak izatearren. Enkarterrietako astoa berriz galtzeko zorian dago eta han zerbait emango omen dute arraza autonoma bezala mantentzeko. Hemen ez, hemengo astoa definitu gabeko arrazakoa da eta oraindik ez da dirulaguntzarik onartu".

Jaurilaritzaren aginduz, markajea egin berri da zaldi, behor edota astoak ere kontrolatuta izateko. Aipatutako markajea bi modutan egin da, txipa jarriz edo nitrogeno likidoa erabiliz. Azken hau debaldeko metodoa izan da eta txipa jartzea baserriarrak berak ordaindu behar izan du. Iburgurenen hitzetan, "nitrogenoa erabili izan da gehien azken batean merkeagoa delako. Lehen sutan egiten zen moduan, orain nitrogeno hotzean sartu eta astoen atzekaldean zenbaki bat jarri zaie asto guztiei. Txiparen sistema monturako zaldien kasuan erabili izan da batik bat, marka zatarrak geratzen baitaie bestela". Iburgurenen arabera, "zenbait baserrietan behinik behin, txakurra dauken moduan, astoa mantentzen dute, konpainiako animalia balitz moduan. Astoak lehen zeukan lan zentzua galdu egin du gaur egun".

TXOMIN AMASORRAIN. KIÑU ARTXIBOA



San Pedroko burreria, orain dela gutxi ohizkoa zen irudia.

"baserrian beti izan dugu astoa. Orain dela gutxi bi asto akabatu zitzaizkigun, bat zaharra zelako eta beste bat soka katiatu ondoren ito zelako. Orain daukagu bost bat urte dela eka-ri genuen eta umeeek "Petita" deitzen diote. Batez ere etxe ingurua garbitzeko eta kalera bidean irtetzen den belarra kentzeko erabiltzen dugu. Eragin ezkerre langilea da astoa, bai. Baina kotxea edukiz gero, ez da beharrezkoa gaur egun. Lehen errekauek


egiteko eta esnea eramateko asko erabiltzen zen eta oraindik ere gizonak kotxerik ez daukanean astoa eramaten du kale-rra eta ospital ostean aparkatzen du. Orain dela urte batzuk ikastolako ikasleek astoa eraman zuten karnabaletan Juan Valdes telebistako kafe-biltzaileaz mozorrotu zirenean; umeeek Kolonbiako kafea jarri zioten banastetan orduan. Gure biloba batek kalean ikusi eta berehala konturatu zen gure baserriko astoa zela".

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ileapaindegia
eder gela
— disdira —
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

Guggenheim museoa ikustera joateko asmorik baduzu?



Eugenio Diez

Ez dut uste horretarako denborarik daukadanik, ez naiz oso museo zalea. Sekula ez naiz joan horrelako tokietara, ez zaizkit gehiegi interesatzen.



Nuria Elkoroberezibar

Igual joango naiz, ez dakit oraindik zer egingo dudan. Joateko aukera komentatu genuen lagunok baina oraingoz ez dugu fetxarrik jarri. Joatea nahiko nuke.




Julian Aginagalde

Ez, ez daukat horretarako ohiturarik eta ez naiz Bilbora joango. Musoea Bilbora ekartzea ondo ikusten dut, joatea nahi duenak hor dauka.



Begoña Martinez

Bai, joango naiz. Artea ez dut gehiegi entenditzen baina saiatzen naiz gehiago ezagutzen. Beharbada inaugurazioaren ondoko astean joango gara Bilbora.



Angel Izuskiza

Ez daukat joateko asmorik, ez. Hor gastatzen diren diruak beste leku batzutan gastatzea hobe egongo litzateke gainera. Ez naiz museotara joatekoa.



Laura Etxaniz

Gustatuko litzaidake joatea, orain mobida haundia izango da baina geroago bai. Edifizioa ere kuriosoa izango da eta pintura asko gustatzen zait.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



zumelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Bolintx
OKINDEGIA
domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 beheha Telefonoa 76.01.26



Baserriaren kontserba

Esnearen eta haragiaren arazoak, laguntzak urri, azpi-egitura haundiak lurrentzat mehatxu, gazte gutxi baserri-an begira... Antzeko berri ugari iristen zaigu euskal nekazarien sektoretik, sekula baino nekezago ari direla dirudi, etorkizunerako kezka eta laino ilunak ikusten dituztelako. Horregatik, pozik entzuten dira joan den astean bailarako baserriarrek eman diguten albistea modukoak: baserriko produktuak poteratzeari ekin dio "Jakion"ek, baserria kontserbatze aldera egiten ari diren ahaleginen artean. Produktore txikien ahalegina batu eta herri txiki batean, Gatzagan, elkartu dira, bestelako iniziatiba berri batzuekin batera herria ere aurrera atera nahian.

Komunikabideen bidez bakarrik dastatu ahal izan ditut oraingoz barazki eta mermeladok, baina gusto ona hartzen dio produktuari. Enpresa munduan hezkuntzan, erosketetan, lanean, bizitza pertsonalean eta abarretan, kalitateaz hitz egiten da aspaldian. Bertako produktuak ere labelak ateratzen ari dira eta kasu honetan bezala, kalitatea ziurtatuta dago ahora eramaten dugun horretan ere. "Jakion" poteetan ilusioa, izerdia eta bertakoari dioten maitasuna antzematen dira osagai.

Baina demostratzeke dagoen label bakarria kontsumitzaileona dela egingo nuke, eta geuk ere atera beharko genuke hori. Lan onak eta jaki onak zorte ona izan dezala.

Arantzazu LOIDI



Interneten mundu(an) ero(an)

Oporretako itzulera ez da sekula erraza izaten. Egun gutxitan egokitu behar izaten dugu geure burua ia ahaztutako egunerokotasunera, eta horrek nahi baino buruhauste gehiago ematen dizkigu. Nik orain dela astebete pasa egin nuen itzulera hori. Oraingoan, ordea, lanerako bueltak izan du berezia egin duen elementurik.

Aspaldiko kontua genuen lanean ordenadoreak aldatu behar zituztela; urteak erdizpudi eta arrastaka lan egin ondoren, PC zaharrek Macintosh "moderno"i tokia utzi behar zirela gure egunerokoan.

Halako kontuak sarri aditzen dira, baina beti pentsatu ohi da: "ba, oraindik itxaron beharko dugu horretarako". Oraingoan, oster, ez. Lanera buelta, eta hara non aurkitu dudun horietako bat. Internetera konektatuta nagoela ere jakin dut.

Ez daukat garai berrietara egokitzeko beldurrik, eta utte dut teknologia aurreratuek onura handiak ekarriko dizkigutela. Are gehiago, mundu berrira moldatzen ez dena galduta dagoela pentsatzen dut.

Hala eta guztiz ere, oraindik mundu ero horretan eroa ni sentitzen naiz, eta e-mail, posta elektronikoa, serbidore eta abarren aurkako borrokan galtzen ari naiz, nahiz eta egunetik egunera aurrerapausoak ematen ditudan. Zutabetxo hau ere ordenadore horretan idatzi dut eta hori ez da, ez, lorpen makala.

Mikel LIZARRALDE

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



■ Urtebetetze jaialdia

Jam-en urtebetetzea ospatzeko **Flay Shit, Koma eta Anestesia** taldeak gonbidatu zituzten musika aretoko arduradunek joan zen eguakitzean. Aretoa jende gaztez leporaino bete zen eta hiru taldeek emanaldi ederren eskaini zuten. Bergarako **Flay Shit** boskoteak (argazkian) gustora lagar zituen euren jarraitzaileak. **Setien Ostoa, Elortza, Eloy (plazentziarra) eta Unai** osatzen dute taldea. Gazteak dira, 16-17 urte dituzte, baina instrumentuak menderatzen doaz heinean, soinu konpakto eta landuagoa eskaintzen dute kontzertutik kontzertura. Ikusi

bestarik ez dago Aranzadi Ikastolako jaian, San Jolgorion, orain dela bi urte inguru debutatu zutenetik gaur egun arte izan duten bilakaera. Bestalde, garai batean inguru hauetan ospe handia lortu zuen **Toy Dolls** taldea izango dugu gaur, eguakitzea, 22:00etan Jam-en. Datorren eguenean, berriz, **Alimentacion Fantasma** taldeak joko du 22:00etan aurrera. Valen Kalboetxeaga, Koldo Lizarralde, Aitor Aranburu eta Amaia Arriaranek osatzen duten taldeak **maketa grabatuko du** bertan.



■ Hori pieza hori!

Marcelino Gonzalez bergararrak **Galizian** perretxikotara joan eta argazkian ikus daitekeen pieza ikusgarria topatu zuen. Marcelinok bere jaioterrian, **Villar de Condesen** (Ourense), zuhaitz baten ondoan aurkitutako perretxikoak **8 kilo** inguruko pisua zeukan eta kontsulta ugari egin arren ezin izan zuten perretxikoa identifikatu. Marcelino perretxikuzale amorratua dugu baina oraingo honetan ezin izan zuen lagunekin afari-merienda ederra egin. Perretxikua analizatu ondoren jateko ez zuela balio ikusi zuten. Hori bai, oroimenerako argazkia atera zuten. Argazkian Marcelino perretxikua eskutan duela.

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tfnoa: 76 27 93

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

GURIDI

 altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

■ Urrezko ezteiak

Juanita Unzilla eta Luis Agirre bergararrek euren ezkontzaren urrezko ezteiak ospatu zituzten domekan. Luis eta Juanita **1947ko urriaren 9an ezkondu ziren** Arantzazun eta igandean elkarrekin igarotako lehen 50 urteak zelebratzeko familiarekin bildu ziren. Monja Zaharretan meza entzun ondoren, bazkaria izan zuten Lasa jatetxean eta, besteak beste, han izan ziren Juanita eta Luisen 5 seme-alabak eta 12 bilobak. Opari ugari jaso zituzten biek, tartean Lanzarotera joateko bidaia ere bai. Hori suertea hori, hemen dugun eguraldia ikusita... Ondo pasa eta zorionak!!



Zertan dihardute ba?



Javier Berasategi

Bergarako Tratamientos Termicos S.A. (TTT) enpresako presidentea euskal enpresa-gizon onenaren saria jaso zuen astelehenean Bilbon. Aurtengoa Empresa XXI astekariak, ETBk eta Euskadiko Kutxak ematen duten sariaren seigarren edizioa zen. Javier Berasategi Legazpin jaio zen 1938an eta Patricio Echevarria enpresan lanean hasi ondoren, 1961ean TTT enpresa sortu zuen Legazpin lagun talde batekin batera. 1972an TTT Bergaran kokatu zen. Iazko martxoan Berasategi Gipuzkoako urteko enpresa-gizona izendatu zuten.

■ Zinemaldian

Antonio eta Luis Zabala anaia bergararrak **Donostiako Zinemaldian epai-mahai lanetan** izan genituen. Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak **giza baloreak** bultzatzen dituen filmeari ematen dion saria erabakitze



lanetan izan ziren Luis eta Antonio. Eurekin batera, besteak beste, **Ernest Lluch** ministro ohia, **Juan Mari Bandres** abokatu edota **Txaro Arteaga** Emakundeko zuzendaria izan ziren epai-mahaian. Sail ofizialera aurkeztutako filmeetatik, **John Saylesen "Hombres armados"** luzemetraia eron zuen odol emaleen saria, "elkartasunaren, gizarte-garapenaren eta kultur gutxiengoaren errespetuaren aldeko eta bortizkeria eta zapalketaren kontrako oihua altxatzeagatik". Argazkian epai-mahaiko kideak saritutako zinegile iparamerikarrek.

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235
 Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA


ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTITAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
 Eskua ezazu aurrekontua
 konpromezu barik
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

Irene Unzueta

Hirugarren denboraldia egingo du aurten BKEn fisioterapeuta lanetan. Futbol talde guztietako lesionatuak zaintzen ditu eta talde nagusiko partiduetan ordezkoen aulkian eseritzen da. Era berean, urriaren 1etik Jubilatuetako Eguneko zentruan ari da lanean.

- Zer behar da fisioterapeuta ona izateko?
- Esperientzia eta ikasteko gogoia.
- Partiduetan zer eramaten duzu maletinean?
- Gauza asko: reflexa, gasak, tiritak, ur oxijenatua...
- Ur milagrosorik?
- Boteilakoa, jokalariek edateko eta zauriak garbitzeko.
- Futbolariak kexatiak dira?
- Ez dut uste beste batzuk baino gehiago kexatzen direnik.
- Arbitroari protesta egiten diozu aulkitik?
- Ez, beste batzuk ibiltzen dira zarataka...
- Bota dizuten lorerik politena?
- Askotan beste taldeko zaletuek eurekin fitxatzeko esaten didate; amorrua ematen dit horrek.
- Eta lagunek, zer esaten dizute?
- Ez daukadala suerte makalik, hainbeste mutilen artean...



“Hainbeste mutilen artean egotearren suertea daukadala esaten didate lagunek. Futbol zaletu sutsuenak azkoitiarrak dira. Letxe txarra daukat, baina edozer gauzarekin egiten dut barre”

- Futboleak jokatu duzu sekula?
- Ez, txikitan errekreoan...
- Futbolari bat?
- Jose Mari Bakero, dudu barik.
- Zein postutan amaituko du Bergarak aurten?
- Gaudenetan jarraitzea komeni...
- Puntuatu Agorrosingo zalegoa.
- Aurten 8 bat emango nioke.
- Zalegorik sutsuena, non?
- Azkoitiakoa, sutsuegia beharbada.
- Futbol zelairik politena?
- Lazkaakoa.
- Eguneko zentruan zelako lana egiten duzu?
- Estimulazioa eta beraien beharrei erantzun.
- Laneko gauzarik onena?
- Beraiek emandako esker ona.
- Zure kalitate bat?
- Niri galdetzea ere!!
- Eta defektu bat?
- Letxe txarra daukadala.
- Hobby bat?
- Musika eta antzerkia.
- Kantari bat?
- Xabier Montoia.
- Antzezlan bat?
- “El florido pensil”.
- Aktore bat?
- Jose Ramon Soroz.
- Filme bat?
- “Secretos del corazon”.
- Negar egin duzun azken aldian?
- Errez egitekoa naiz baina ez dut gogoratzen.
- Eta zerekin egiten duzu barre?
- Edozer gauzarekin.

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 35 20.

Etxea salgai Zubiaurren.
Terrazarekin, eguzkitsua.
☎ 76 64 88 (gauetz).

Pisu amueblatua salgai.
☎ 76 49 30 (gauetz).

Pisua salgai Frontoian. 160
m². ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Martokon.
☎ 76 45 27.

Pisua alokairuan Bilbon,
Deustun. ☎ 76 13 14.

Garajea alokairuan Ibar-
garain. ☎ 76 33 76.

Pisua salgai Aranerrekian.
☎ 76 42 65 (gauetz).

Lokal komertzialak alo-
kairuan Zurraderon eta San
Pedron. ☎ 76 57 69.

Logela bat alokairuan (su-
kalderako eskubidearekin).
☎ 76 13 46 (Dorleta).

Lokala alokairuan Telesfo-
ro Aranzadin. ☎ 76 30 08.

Garajea alokairuan Burdi-
ñatan. 20m². ☎ 76 40 03.

Pisua alokairuan Berga-
ran. ☎ 76 37 80 (gauetz).

Pisua salgai Dr. Fleming
kalean. ☎ 76 56 99.

Garaje bikoitza alokairuan
Zurraderon. ☎ 76 57 69.

Pisu bat alokairuan hartu-
ko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

2. eskuko **motoaitzurra**
erosiko nuke. ☎ 76 58 12.

Hozkailu berria salgai.
Egoera onean. ☎ 76 70 86.

Ileapaindegia alokatzen
da Bergaran. Prezio inter-
resgarria. ☎ 76 56 85.

Botoidun akordeoia
behar dut. 120 bajurekin.
☎ 76 07 79.

Renault 5 GT Turbo
kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Ume baten txandal tx-
keta urdina galdu nuen
irailaren 28an. ☎ 76 70 75.

Nikon FM2 kamara berria
salgai. Rowi boltsa haun-
diarekin. ☎ 76 50 86.

Gasteizen pisua osa-
tzeko ikaslea behar da.
☎ 76 41 59 (Iñaki).

Renault 4 kotxea salgai.
Merkea. ☎ 79 23 69.

Ordenagailua salgai. 586
Pentium plaka. ☎ 76 19 16.

Arrantzako kainaberak
salgai. Matxiategi 29, le-
hen pisua ezkerrean.

"Zero-sette" soinu txikia
salgai. ☎ (945) 27 44 26.

Butanozko berogailua
eta egurrezko kalefazio
galdara salgai. ☎ 74 41 28.

LANA

Haurrak zaindu eta etxe-
ko lanetarako neska behar
da. ☎ 76 24 33.

Kitarra klaseak hartuko
nituzke. ☎ 76 46 48.

Andra batek zaharrak zain-
du edo etxeko garbiketak
egiten ditu. ☎ 76 00 90.

Etxeko lanetarako edo
atariak garbitzeko neska es-
keintzen da. ☎ 76 13 46.

Ingeles eta OHOKo
klaseak. ☎ 76 22 95.

Etxeko garbiketak egingo
nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

Tabernaria eskeintzen
da. ☎ 76 04 57.

Mate, fisika eta kimika
klaseak. ☎ 76 24 31.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pintura eta marrazki kla-
seak (Arte Ederretan lizen-
tziatuta). ☎ 76 03 83.

Lizentziatu batek mate,
fisika eta kimika klaseak
ematen ditu. ☎ 76 70 40.

7-12 urteko gaztetxoei
marrazketa librean lagun-
tzeko prest nago. ☎ 76 34
83 (5etatik 6etara).

Klinika auxiliari batek
helduak edo gaisoak zain-
duko lituzke. ☎ 76 18 79.

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 42 63.

Mate, fisika eta informati-
ka klaseak. ☎ 76 46 03.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**KORTA-ZAR****Txokolategia**

*Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62


ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



BONOFOTOA



Iosu Zabaleta

Iosu Zabaletak jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen ziren iturriak zein auzo eta herritakoak diren galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Irimoegi goikoa auzoa (Gorla, Antzuola) eta Elusu (Bergara)** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Iosu Zabaletari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Bergarako zein kaletan daude Erdi Aroko leiho hauek?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PAGOMENDI	9	4	21	8
2. BAR CANALEJAS	9	3	13	7
3. A ZE FLAXA ETXAGI	7	4	14	10
4. AZPEITXI JATETXEA	7	4	14	11
5. MONGATXURRAK	7	3	14	6
6. JAUJA OH ZEREZOS	6*	4	13	8
7. ETXAGI	3	4	8	10
8. AGINASPI	3	4	7	23
9. ORTZI	1	4	2	10
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	1	3	2	7
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	1	3	4	11
12. ERROTAGAIN	1	2	4	5

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	12	4	48	10
2. MRW	9	4	18	7
3. AGIRREBEÑA JATETXEA	9	4	15	8
4. ALDOKA MALDOKA	7	4	10	7
5. SHAKTALE	6	4	13	5
6. GANBARA ARI ARI	6*	4	12	8
7. MANITOU	4*	4	15	4
8. MOSKIS	4	4	8	14
9. INDARGORRI	3	4	9	18
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	4	6	28
11. KAIXO	0	4	7	33
12. IGANDEKOAK	-3*	4	5	24

B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. SLO	9	4	10	7
2. ARTUSAMAK	9	3	20	6
3. AUTOBEREZI	7	4	21	11
4. JAKINA PT	6	4	17	11
5. UVE BIKOITZA	6	4	12	11
6. KUSOAK	6	3	13	11
7. AMOZKIBAR	6	3	10	13
8. ERDIBITERRAK	4	4	11	13
9. BAYER	3	3	8	16
10. TXIPIRON	1	4	6	19
11. AMILOTX	-2*	4	6	12

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. LA JUVE	9	4	18	5
2. GUADALEST	9	4	18	9
3. UFALA	9	3	16	5
4. ERI SIRIMIRI	7	4	16	12
5. BAR GANBARA	6	4	23	13
6. FAC	6	3	18	8
7. ETENGABE	4	4	5	10
8. KOMANDO PIPERRAK	3	3	6	9
9. MATXAKATEGI	3	3	8	17
10. LA PEÑA DML	0*	4	10	14
11. PATATUS	-3*	4	3	27

* KARNETAK EZ ENTRAGAZARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

Jokoz kanpo



Diego Sanchez

GUADALEST

ZELA ZOAZTE TXAPELKETAN?

Nahiko ondo, 3 partidu irabazi ditugu eta bakarra galdu.

AZKENENGO PARTIDUA, LA PEÑA DML TALDEAREN AURKAKOIA, GOGORRA IZAN ZEN?

Bai, Zubiaurrekoak gara guztiok eta leh ia gogorra izaten da.

TXAPELKETAREN SISTEMA BERRIA ZER IRUDITZEN ZAIZU?

Guretat gaizki. 4. mailara jeitsi gintuen eta urtero mailaz igo dugu. Orain, 2. mailan jokatu beharrean, betiko taldeekin ari gara jokatzen.

ZENBAT URTE DARAMAZUE ELKARREKIN JOKATZEN?

Ez dakit, 12 edo 13 urte.

ZEIN DA TALDEKO IZARRA?

Talde honetan ez dago izarririk, guztiok gara berdinak.

TXAPELKETAKO JOKALARIRIK ONENA?

Gure taldeko Felix Barrocal.

ZE TALDETKOAK ZARA?

Realekoa.

UEFARAKO SAILKATUKO DA?

Zaila da, baina lesionatuta daudenak jokatzen hasten direnean nahiko ondo ibiliko direla uste dut.

REALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Alberto.

ZE JOKALARI FITXATUKO ZENUKE?

Raul.

NORK IRABAZIKO DU MUNDIALA?

Brasiliek.

EMAITZAK

ORTZI-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-1
BAR CANALEJAS-AZPEITXI JATETXEA	7-4
JAUJA OH ZEREZOS-AGINASPI	7-3
ARLOTEAK/OILAGORR-ETXAGI	1-1
PAGOMENDI-A ZE FLAXA ETXAGI	3-5
INDARGORRI-MRW	4-3
KAIXO-ALDOKA MALDOKA	0-6
AGIRREBEÑA JATETXEA-GANBARA ARI ARI	2-3
IGANDEKOAK-MOSKIS	2-6
POLIDEPORTIVO TABERNA-EZINLEIKE	0-14
SHAKTALE-MANITOU	0-1
AMILOTX-AMOZKIBAR	1-3
TXIPIRON-AUTOBEREZI	2-6
KUSOAK-SLO	7-3
ARTUSAMAK-ERDIBITERRAK	4-3
UVE BIKOITZA-JAKINA PT	4-2
PATATUS-LA JUVE	2-4
KOMANDO PIPERRAK-ERI SIRIMIRI	2-4
UFALA-BAR GANBARA	5-2
ETENGABE-MATXAKATEGI	1-3
LA PEÑA DML-GUADALEST	2-3

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: BAYER-AMILOTX • ALDOKA MALDOKA
10:00: ALDOKA MALDOKA-INDARGORRI • POLI. TABERNA
11:00: MRW-POLIDEPORTIVO TABERNA • INDARGORRI
19:15: AGINASPI-BAR CANALEJAS • ETXAGI
20:15: ETXAGI-MONGATXURRAK • BAR CANALEJAS

Zapatuan kanpoan

12:00: MATXAKATEGI-LA PEÑA DML • SLO
13:00: SLO-ARTUSAMAK • LA PEÑA DML
16:00: AMOZKIBAR-UVE BIKOITZA • ERI SIRIMIRI
17:00: ERI SIRIMIRI-UFALA • FAC
18:00: FAC-ETENGABE • UFALA

Domekan barruan

09:00: SHAKTALE-IGANDEKOAK • MANITOU
10:00: MANITOU-GANBARA ARI ARI • PAGOMENDI
11:00: PAGOMENDI-ARLOTEAK • GANBARA ARI ARI
16:00: AZPEITXI JATETXEA-ORTZI • A ZE FLAXA ETXAGI
17:00: A ZE FLAXA-BILDURBAREK • MONGATXURRAK
18:00: MONGATXURRAK -ERROTAGAIN • EZINLEIKE
19:00: EZINLEIKE-AGIRREBEÑA JATETXEA • MOSKIS
12:00: MOSKIS-KAIXO • AGIRREBEÑA JATETXEA

Domekan kanpoan

09:00: PATXARAN TEAM-TXIPIRON • AUTOBEREZI
10:00: AUTOBEREZI-KUSOAK • TXIPIRON
16:00: LA JUVE-KOMANDO PIPERRAK • GUADALEST
17:00: GUADALEST-PATATUS • LA JUVE

OHARRAK

MANITOU TALDEARI BI PUNTU KENDU ZAIZKIO ARBITRATZERA BERANDU IRISTEAGATIK. BESTALDE, AGINASPI TALDEKO A. POMPARR ETA F. MORENORI HIRUNA PARTIDUKO ZIGORRA EZARRI ZAIE ARBITROAK BEHIN ETA BERRIZ IRAINTZEAGATIK; JARDUNALDI HONETAN HASITA IZANGO DA ZIGORRA.

TXINPARTAK

Pilota partiduak

Gaur 19:30etan jokatu dira DV pilota torneoaren partiduak Udal Pilotalekuan. Senior mailan Iker Muruamendiarazek eta Txikito IX, Olaizola II eta Pascualen aurka jokatu dute. Ondoren, Gipuzkoako klubon arteko txapelketan junior mailan Martin bergararrak Zumarragako ordezkariaren aurka jokatu du.

2. mailako jubenil taldea lider

BKEko 2. mailako jubenil taldea lehen postuan sailkatuta dago Antzuolari 3 eta 1 irabazi ondoren. Marianoren mutilek jokatu dute 5 partiduetatik 4 irabazi dituzte eta bakarria galdu dute. Zapatuan Intxurreren aurka jokatu dute.

Emakumezkoen futbol taldeak hasiera bikaina

BKEko nesken taldeak oso ondo hasi du aurten-go denboraldia eta jokatutako hiru partiduetan bi irabazi eta bat berdindu du. Bitxor Agirrebarrenak eta Inigo Ramirezek zuzentzen duten taldeak joko ona erakutsi du, orain arteko arerioak kategoriko gogorrenak izan ez arren. Zapatuan, berriz, Zumaiako talde arriskutsua izango da bisitari Ipintzan 15:30etan. *"Taldea oso gogorra da eta ondo dabilta. Partidu bakarra galdu dute, baina irabazi egingo dugula uste dut"* adierazi digu Agirrebarrenak.

Mailaz igo

Nesken taldea Gipuzkoako erregional mailan dabil eta mailaz igotzeko aukera izateko 4 lehenengo arteen sailkatu behar harko da. Gipuzkoa mailan bi multzo horietako 4 lehenengoek igoera fasea



Jokalari batzuk taldea laga duten arren, talde sendoa osatzen dute.

jokatuko dute. Zortzi taldeetatik bakarrak igoko du mailaz. *"Joan zen urtean 6. postuan amaitu genuen eta aurten 4 onenen artean sailkatzeko itxaropena daukagu. Taldean 4 baja izan ditugu eta hori igartzen da, baina hemen geratu direnak oso ondo dabilta. Horrela lan egitea zaila da urtero jokalariren batek alde egiten duelako"* diosku entrenatzaileak.

Hiru partidutan 3 gogortu dituzte bergararrak eta oraindik gehiago sartu daitezkeela uste du Bitxor Agirrebarrenak. *"Taldearen gauzarik onena atzealdea da, jokalaria beteranoak baitu. Aurrealdean jokatzen ari direnak jokalar berriak dira eta berrigartzen da, ez dago dardarik. Kalitatea badu, baina esperientzia falta zaie"* dio nesken entrenatzaileak.

Aranzabal lagunartea

Aranzabal lagunartekoak Zaragozara joango dira azaroaren 2an Reala animatzera. Lagunarteak autobus antolatu du eta edonor -ez da beharrezkoa lagunartekoa izatea- joan daiteke autobusean. Sarritan 4.000 pezeta inguru balio ditu eta izena emateko Deportibo tabernara jo behar harko da. Izenarekin batera 1.000 pezetako fidantza laga behar harko da. Lagunartekoek joan zen zapatuan egin zuten urteko lehenengo bilera eta jende gutxi joan zen. Horregatik bileretara agertzeko eta antolaten diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu diete zuzendaritzakoek herriko Realzaleei. Zaragozako irteeraren ondoren Salamancara joateko asmoa dute.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Arrasate

Lehen mailako jubenila.

Zapatua. 17:15.

Ipintza futbol zelaia.

◆ Bergara-Intxurre

Bigarren mailako jubenila.

Zapatua. 12:00.

Ipintza futbol zelaia.

◆ Bergara-Anaitasuna

Lehen mailako kadetea.

Domeka. 11:30.

Ipintza futbol zelaia.

◆ Bergara-Zumaiaiko

Emakumezkoak.

Zapatua. 15:30.

Ipintza futbol zelaia.

FUTBITOA

◆ Lagunak-Pescados GJA

Bigarren maila probintziala.

Eguakitza. 22:15.

Labegarieta kiroldegia.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Donibane

Kadete mutilak.

Zapatua. 16:30.

Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak.

Zapatua. 18:00.

Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Hernani

Senior mutilak.

Domeka. 12:15.

Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Goierri

Kadete mutilak.

Zapatua. 12:15.

Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Larramendi

Junior mutilak.

Zapatua. 16:00.

Mariaren Lagundia.

◆ Bergara-Zarautz

Junior neskek.

Zapatua. 10:45.

Mariaren Lagundia.

Igor Errasti

Golaren usainean

Igor Errasti eibartarra BKEko futboleko lehen maila erregionaleko golegile nagusia da. Hiru urte daramatza BKEN eta aurtengo denboraldian jokatu diren 5 partiduetan beste hainbeste gol sartu ditu. Bere golei eta taldekideen joko bikainari esker, taldea 2. postuan sailkatuta dago. Azken jardunaldian UDARI 4 eta 1 irabazi zioten.

- Pozik egongo zara, ezta?

- Bai, aurrelari baten zatat golak sartzea oso inportantea da. Garrantzitsuena taldeak irabaztea da; hortik aurrera, golak helduko dira. Gainera, oso gustora ari gara jokatzeko. Maila honetan badira 3 talde edo, ahul samarrak direnak, baina talde ona ere badaude. Orain dela 15 egun Tolosa oso partidu gogorra jokatu genuen eta oso garrantzitsua izan zen irabaztea.

- Aretxabaletarren aurka aukera asko galdu zenituzten 4 gol sartu arren.

- Bai, Urolaren kontra ere aukera asko galdu genuen. Garrantzitsuena gol aukerak sortzea da. Zenbat eta gehiago sortu, gol gehiago lortzen dira.

- Asteburu honetako Zarautzeko Antoniano taldearen aurkako partidua zela ikusten duzu?

- Udako oporrak Zarautzen igarotzen ditut eta talde nahiko ona dute. Partidu zaila eta gogorra izango da; ea aurrera ateratzen dugun!

- Joko ona egiteko eta golak sartzeko, taldean giro ona izatea garrantzitsua izango da.

- Bai, taldekideen eta entrenatzailearen artean oso ondo konpontzen gara, gure artean oso giro polita dago eta gero hori zelaian antzematen da.

- Kategoriako talderik zailenak?

- Orioko eta Tolosaldea izango dira areriorik gogorrenak.

- Iaz taldea laga egin zenuen. Aurten denboraldia Bergaran amaituko duzu?

- Kanpoan ikasteko beka bat eman zidaten iaz. Aurten, ostera, lanean nabil eta denboraldia hemen bukatuko dut.

- Eibarko preferente taldetik edo beste talderen batetik eskaintzarik jaso duzu?

- Eibarretik ez, baina preferenteko taldeen eskaintzak izan ditut. Hala ere, Bergaran oso gustora nabilen eta garrantzitsua hori da, pozik egotea.

- Preferentera igozteko aukerarik?

- Bai, baina ezin dugu lo geratu.



Preferenteko taldeen eskaintzak jaso arren Bergaran gustora dago.

“Taldean oso giro ona dago eta hori oso garrantzitsua da”



Argazkia: Mikel Murgizu

1962an jaiotakoak Eskola Nazionaletan


Hil honen 25ean afaria izango dute Antxonin 1962an jaiotako bergararrek. Hori dela eta, 1962an jaiotako mutiko kuadrila ekarri dugu aste honetan txoko honetara. Erretratu 1975. urtekoa da eta gaur egun 35 urte dituztenak 13-14 urterekin agertzen dira argazkian. Eskola Nazionaletan 8.A mailan zeudenak dira.

Goiko ilaran: Garai, Joakin Etxaniz, *Eskufo* Azkarate, Juan Vicente Bengoa, Juan Mari Aranzabal, Iñaki Narbaiza, Imanol Larrañaga, Gregorio Juldain, Jose Idarreta eta Jose Ramon Irigoien.

Bigarren ilaran: Miguel Idarreta, Jabi Meabe, Juan Birumbrales, Martin Guridi, Alfonso Maria Ena, Sabino Azkarate, Martin Juaristi, Mikel Murgizu, Andoni Narbaiza, Pedro Manso eta *Peito* Castelo.

Hirugarren ilaran: Etxezarreta, Jon Ander Larrañaga, Dani Azpiazu, Fran Martinez, Bitxor Galdos, Jaki Gallastegi, Carlos Soriano, Jesus Jabier Eguren, Mikel Aiastui, Iñigo Etxaniz, Martin Azpiazu eta Luis Mari Basterra.

Beheko ilaran: Pako Garcia, ezezaguna, Morillas, Juan Carlos Fernandez, Iñigo Goiti, Martin Cid, Luis Ignacio Ugalde, Manolo Bernier, De Marcos Garcia eta Jose Mari Zezeaga.



Eskertza

Eustakio A. Zubillaga Nazabal

Donostiako Esterlines kalean jaioa. Venezuelan egin zuen bere bizitzako zatirik handiena. Bilbon, Azpeitian eta Bergaran ere bizi izan zen. Bergara aukeratu zuen, hain zuzen ere, azken egunak igarotzeko eta herriak ezin hobeto hartu zuen.

Bere izenean, eskerrak eman nahi dizkiogu **Jubilatu**en elkarteari aurten beraren 87 urteak ospatzeko omenaldia egin ziolako. Baita **Zaharren egoitzari** ere besoak zabalik hartu-zuelako. Era berean, **San Pedroko** parrokia eta **Don Fidel**

parrokoari bedeinkatu eta azken agurra emateagatik eta hileta elizkizunetan parte hartu zuen **koroari**. Eskerrak **Rosa Madinabeitiari** azken egunetan ezin hobeto zaindu zuelako, alaitasuna eta lasaitasuna emanaz.

Azkenik, eskerrik asko bene-benetan senide, lagun, lankide eta bergarar guztioi!

Seme-alabak.

MAPFRE

MAPFREK DISEINU
ESKLUSIBOKO
ZIKLISTA EKIPOA
OPARITZEN DIZU



DOAN

Zure autoaren aseguru
hauetako edozein poliza
kontratatzearren



1997ko
urriaren 31ra
arte du balioa
eskaintza honek

Asegura ezazu zure autoa **MAPFRE**_n

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



LILURA


Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7-1. ☎ 76 31 71

**DEPILAZIO
ELEKTRIKOARI
EKITEKO
SASOIRIK ONENA.**

**BETIKO DEPILAZIO
ELEKTRIKOA!**

- Aurpegi zein gorputzaren edozein ataletan
- Gizon eta emakumeentzat



Bizkarra

Besapea

Besoak

Izterrak

Bernak

✓ **DENBORA GUTXIAGO**
✓ **MIN GUTXIAGO**

Bekainak
Bigotea
Aurpegia
Lepoa

Eskotea

Bularrak

Izterondoak

KONPROBA EZAZU!!

muebles

ARKAZ

**Erakusketaren
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

ARETXABALETAKO

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxa: 79 23 51